

ALIANTZAK

Gure lantaldeak hitzarmenak sinatuko ditu zerbitzua nahi duten Gipuzkoako zaharretxeekin eta bertako udaletxe bakoitzarekin aliantzak egingo ditugu herriko establezimenduetarako.

Proiektu kudeatzailea:

Remember-en lantaldea, zortzi pertsonaz osatuta dago:

- Bi telefonoa erantzuten eta bezeroei kasu egiten
- Bat adiminstrazioa edo finantza arloan
- Hiru programa garatzen
- Bi zaharretxeetan produktua nola erabili erakusten

Programa informatiko bat garatu dugu dagoeneko, beraz, zaharretxeekin hitzarmena sinatu ondoren, beraiekin harremanetan jarriko gara guztia martxan jartzeko.

Udaletxearekin ere harremanetan jarriko gara, beraien boluntario taldea antolatu eta bisiten egutegia prestatzeko. Boluntarioei pertsona heldu batzuk egokituko zaizkio, beraien kargu egiteko eta bakoitzaren fitxa emango zaio, beraien izaera, gustoak, familiarrak etab. ezagutu ahal izateko, eta horrela, konbertsazioak pertsonalizatuak izan daitezzen.

- Rola: Proiektu osoa kudeatzea eta ardura hartzea, helburuak betetzea eta prozesu guztiak koordinatzea.
- Garrantzia: Oso garrantzitsua da, proiektua egoki burutzea eta helburuak lortzea dagokion denboran.

Zaharretxeak

Zaharretxeko medikuak jarriko die txipa bertako adineko pertsonen eta programa informatiko baten bitartez, ikusi ahal izango dute heldu bakoitzaren osasun egoera eta neurriak hartu honen arabera. Txipa gorputz barruan jarrita dagoenez, analitikak ez dizkie egin beharko, zuzenean jasoko dute behar duten informazio klinikoa. Txipaz gain, pertsona heldu bakoitzak audifono bat edukiko du eta zaharretxeko langileek lagunduko die gauean kendu eta goizean jartzen.

- Rola: Helduen beharrak ulertu eta kudeatzen lagundu. Taldean lan egitea, eginkizunak betetzea eta gurekin informazioa trukitzea.
- Garrantzia: Gure arteko harremana ezinbestekoa da proiektu hau ondo ateratzeko.

Udaletxeak

Udaletxeekin harremanetan jarriko da gure lantaldea boluntarioen sare bat sortzeko. Boluntario hauek txandakatuz bisitak egingo dizkie aiton-amonei gure lana osatzeko, erlazio zuzena oso garrantzitsua iruditzen baitzaigu, eta ez bakarrik distantzizko konbertsazioak. Boluntario hauek, arratsalde edo jai egunetan bisitan joango dira eta ordu batzuk helduekin igaroko dituzte zaharretxean bertan edo herritik paseo bat emanez.

- Rola: Boluntarioak aurkitzea izango da.
- Garrantzia: Interesdunekin harreman erabilgarria izatea, eta haien beharrak proiektuaren helburuak betetzeko erabilgarriak izan behar dute.